

Añorga


Unanuerekin finalera

Herrera

Lierni Otamendi (finoa.: 363436)

Esku pilotako binakako txapelketan finalerako sailkatu dira Mikel Unanue auzotarra eta Jokin Errasti azkoitiarra. Izugarritzko maila erakutsi dute bi pilotari gipuzkoarrek eta ez dute galdu partidu bakar bat ere. Txapelketan une honetan bikoterik indartsuena dela erakutsi dute.

Mikel Unanue animatzen joateko, Jolas Etxean jarri den zerrendan izena eman beharra dago aste hau bukatu baino lehen. Lehenbailehen joatea gomendatzen da sarrera kopurua mugatua baita. Afaria ere antolatuko da eta izena Jolas Etxean bertan eman behar da.



Mikel Unanue maila polita erakusten ari da aurtengo txapelketan.

Datorren igandean jokatuko den partiduan erabakiko da zein izango diren beste finalistak. Elkoro-Etxaniz edo Berna-Titin bikoteetatik

aterako dira añorgatarraren hurrengo arerioak. Finala berriz, hilaren 21ean jokatuko da Donostiako Atano III pilotalekuan.

Larraitz Garmendia (finoa.: 391267)

Kaldereroak auzoa girotzeko

Azken hilabete hauetan gazteen artean eztabaida handia egon da Herrerak bizi duen kale giro eskasa dela eta. Hau saihesteko, Mozkor Frentekideak lagun taldeak jai berezia antolatu du kaldereroak ospatzeko. Larunbatean, hilak 14, 19.00etan hasita, auzotik aterako da kaldereroen konpainia. Auzotegitik San Luis plazara joango dira, eta bertatik Txingurri, Gaiztarro eta Euskal Giroa elkarteak bisitatuko dituzte.

80 urtetik gorakoei omenaldia

Herrerako Zahar Etxean aurren 16 pertsonei egin zaie omenaldia, Ignacia Egaña Sarasolak eta Adrian Garcia Corralek 90 urte bete dituzten bitartean, gainerako hamalauk 80 urte egin dituzte. Zorionak!

Ihaueterietako jai ostiral mehean

Gazte Asanbladak jai antolatu du auzoan datorren ostiralerako, otsailak 20. Ihauteriak ospatzeko Jolas etxean mozorro-afaria egingo da, ondoren mozorro lehiaketa antolatuz. Afariari parte hartu nahi duenak izena agudo eman behar du eta 1.800 pezeta ordaindu. Datorren astean jaiaren zehazkizunak emango dizkizuegu.




Oialume bidea
Tfinoa.: (943) 33 33 33
20115 ASTIGARRAGA
(Gipuzkoa)

- Urte osoan zabalik
- Txotxeko sagardoa
- Eguneko menua, 1.200 pezeta
- Astebukaerako menua 2.200 pezeta
- Sagardotegiko ohiko menua



SAGARDOAN JAKITUNA BAZARA ALDEA NABARITUKO DUZU



Sagardo Natural Orekatua,
lasto kolore eta
fruitu zaporekoa,
edozein jakirentzat egokia.

**GURUTZETA
SAGARDOTEGIA,**
BERRIKUNTZA ETA
TRADIZIOA SAGARDO
NATURALEAN

Gurutzeta Sagardotegian egina. Oialume Bidea. Astigarraga. Gipuzkoa.
Tfinoa.: 55 22 42 - Faxa.: 31 10 01